

# Alfredo Espinosa-Urdulizko Ospitalearen Irekiera



**Osakidetza**

**PERTSONA  
HELBURU**

**COMPROMISO CON  
LAS PERSONAS**

**EUSKO JAURLARITZA**




**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Urdulizko Ospitaleak **175.000**  
pertonaz osatutako  
biztanleriari emango dio arreta.






Alfredo Espinosa-Urdulizko Ospitalea zerbitzua ematen hasteak Uribe eskualdean bizi diren pertsonei eskaintzen zaien arretaren kalitatea hobetzen lagunduko du. Ospitaleratzeko 148 ohe, 8 ebakuntza gela, larrialdi zerbitzua, kanpo kontsultak, proba funtzionalak, endoskopiak, mamografiak, TACak, Erresonantzia Magnetikoa, etab. ditu.

Ospitalea irekitzean, duela 32 urte Galdakao-Usansoloko ospitalea inauguratu zenetik oheak dituen lehenengo zentro handia gehituko zaio Bizkaiko osasun sareari. Urdulizko Ospitalea zerbitzua ematen hastean hobetu egingo da Eusko Jaurlaritzako Osasun Saitetik eta Osakidetzaatik gizarteari eskaintzen zaion zerbitzua, prestazioak eta arretaren kalitatea hobetuz.

## Uribeko eskualderako arreta

Osakidetza Urdulizen zabalduko duen ospitale berriak, 175.000 biztanle inguru dituen Uribeko eskualdeari emango dio arreta. Biztanleria Arrieta, Bakio, Barrika, Berango, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Getxo, Gorniz, Laukiz, Leioa, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Plentzia, Sopela eta Urduliz udalerrietan dago banatuta.



Osasunaren zainketan  
ari diren **600** profesionalak  
osatuko dute Osakidetza  
Ospitalean izango duen  
lantaldea.

# Zerbitzu kartera zabala

Urdulizko Ospitaleak, pixkanaka osatuz joango den zerbitzu kartera zabala du.

## Urdulizko Ospitalea irekitzen denerako aurreikusten den zerbitzu kartera

Osasun espezialitateak	Zerbitzu zentralak	Espezialitate kirurgikoak	Ospitaleratzerako alternatibak
Alergologia	Analisi Klinikoak	Kirurgia Orokorra eta Digestio aparatua	Ospitaleratzea etxean
Digestio aparatua	Anatomia Patologikoa	Ginekologia	Eguneko Ospitale Medikua
Kardiologia	Farmazia	Oftalmologia	Eguneko Ospitale Kirurgikoa
Dermatologia	Erradiodiagnostikoa	Otorrinolaringologia	
Endokrinologia	Errehabilitazioa	Traumatologia	
Hematologia	Prebentzio medikuntza	Urologia	
Barne Medikuntza	Anestesia eta Erreanimazioa		
Neurologia	Larrialdiak: helduentzat eta pediatriakoak		
Onkologia Medikua			
Psikiatria			
Erreumatologia			
Nefrologia			
Neumologia			

**LARRIALDIAK:**  
helduentzat eta  
pediatriakoak.

## Prestazioak zabalduz

Areetako, Algortako eta Mungiako anbulatorioek euren kanpo kontsultekin jarraituko dute. Halaber, Areetako erradiodiagnostiko zerbitzuak bere horretan jarraituko du. Urdulizko Ospitale berriak zabaldu egingo ditu orain arte anbulatorioetan eskaini diren prestazioak.

2016ko uda hasieran emango zaio hasiera Ospitaleko jarduerari, kanpo kontsultekin eta proba funtzionalekin eta Erradiodiagnostikoarekin.





# Uribe ESI

2016ko uda hasieran ospitale berria zabaldu aurretik, inguruko 3 anbulatorioak Uribe Erakunde Sanitario Integratua (ESI) izenekoan integratu dira. Horri esker, lehen arretako profesional taldeak ospitaleko arretarekin era koordinatuan lanean aritzeko aukera izan du.

## Pixkanakako

### 2016ko uztaila

- Harrera eta informazioa
- Kanpo kontsultak
- Proba funtzionalak
- Erradiagnostikoa

		C blokea		A blokea	
<ul style="list-style-type: none"> <li><span style="color: #4CAF50;">■</span> Gune anbulatorioa</li> <li><span style="color: #395468;">■</span> Ospitaleratzea</li> <li><span style="color: #009688;">■</span> Zerbitzu zentralak</li> <li><span style="color: #FFC107;">■</span> Larrialdiak</li> <li><span style="color: #395468;">■</span> Administrazioa eta kudeaketa</li> <li><span style="color: #E53935;">■</span> Zerbitzu nagusiak</li> <li><span style="color: #395468;">■</span> Instalazioak</li> </ul>	SOL.5	Kanpo kontsultak			
	SOL.4	Kanpo kontsultak			
	SOL.3	Kanpo kontsultak			
	SOL.2	Erreserba		Bloke kirurgikoa	Anestesia ondorengo Sendatze Unitatea (AOSU)
	SOL.1	Kanpo kontsultak		Larrialdiak: helduentzat eta pediatriakoak	
	SOL.1 BEHATZEA	Langile eta ekonomia gunea	Harrera eta informazioa	Hemodialisia	Erradiagnostikoa
	SOL.1	Farmazia	Errehabilitazioa	Instalazioak eta hornidurak	Zerbitzu orokorrak
	SOL.2	Instalazioak eta hornidurak		Instalazioak eta hornidurak	

C blokea kanpo kontsultetara bideratuko da; A blokean ebakuntza gelak eta larrialdiak egongo dira, eta B blokean ospitaleratze guneak, endoskopiak egiteko gelak, kirurgia nagusi anbulatorioko ebakuntza gelak eta eguneko ospitale medikua eta kirurgikoa.



## irekieraren egutegia

Lehen fasea	Bigarren fasea	Hirugarren fasea
Larrialdiak	Ospitaleratze medikua (64 ohe) eta Ospitaleratze Kirurgikoa (64 ohe)	Onkologia medikua
Analisi klinikoen laborategia	Psikiatriako Ospitaleratzea	Eguneko ospitale medikua
Kirurgia Nagusi anbulatorioa (2 ebakuntza gela)	Kirurgia blokea (6 ebakuntza gela)	
Eguneko ospitale kirurgikoa	Erreanimazio unitatea (URPA)	
Endoskopia	Ospitaleratzea etxean	

### B blokea



3 eraikin bloke,  
38.000 m<sup>2</sup>ko  
azalerarekin

Urdulizko Ospitaleak 8 solairutan eta 3 bloketan banatutako 38.000 metro karratu ditu. Beheko solairuaz gain, hiru blokeek lur azpiko bi solairu dituzte.

Urdulizko  
Ospitalearen urteko  
funtzionamenduak  
45 milioi euro  
eskatuko ditu.

# 59,4 milioiko inbertsioa

Alfredo Espinosa-Urdulizko Ospitalea, azken 32 urteetan Bizkaian zabaldu den horrelako lehenengoa da. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 59,4 milioi euroko inbertsioa egin du martxan jartzeko.

Obra	52,7 milioi €
------	---------------

Ekipamendua	6,7 milioi €
-------------	--------------

<b>GUZTIRA</b>	<b>59,4 milioi €</b>
----------------	----------------------

Urteko funtzionamenduaren kostua 45 milioi €
--

Garraio publikoz heltzeko: **Metro Bilbao** (Urdulizko geltokia) eta **Bizkaibus**.

Helbidea: Goieta Kalea, 32. Urduliz

